

## 'ORAIN HERRIA, ORAIN BAKEA', Batasuna, 2004-11-14

### (ardatzak)

#### Konponbidearen giltza

- «Eremu politiko eta administratibo ezberdinetan zatiturik eta urturik, Euskal Herria herri ukatua da, luzaz ukatua. (...) Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea onartuz eraiki daiteke soilik konponbidea».

#### Bakerako aukera

- «Egungo egoerak (estatus politikoen krisiak, proposamenen ugaltzea, herri kontsultaren beharra) baldintza berriak sortu ditu gatazka konpontzeko egin beharreko apustuari begira.

#### Indarkeriaren gabeko prozesua

- «Ezker abertzalearen ardura da gatazka politiko eta armatua kaletik atera eta konponbide mahaira eramatea. Helburu hau betetzeko oztopo gerta daitezkeen faktoreak gainditzeko konpromiso sendoa behar da guztien partetik. Batasunak konpromiso hori berretsi nahi du».

#### Akordio integratzailea

- «Eraiki beharreko akordioak, Euskal Herriaren historia eta errealitatea kontuaz hartuz, sentsibiltate politiko ezberdinen atxikimendu eta errespetua lor dezan konpromisoa hartzen du [Batasunak]».

#### Kontsentsuaren bidetik

- «Prozesu honetarako Batasunak bere prestutasun osoa azaldu nahi du, aurretik aitortuz inork ez duela egia osoa eta eraiki behar den akordioa guztiena izango bada, alde guztiek egin beharko ditugula kontzesioak».

#### Erabakitzeko eskubidea

- «Euskal Herriaren gaur egungo egoeratik abiatuta, euskal herritarrek libre eta demokratikoki hautatuko duten edozein egituraketa posible egingo duen egoera batetara iristeko ibilbidearen inguruan [egin behar da hitzarmena euskal eragileen arteko mahaian]».

### Aukera berdintasuna

- «Esklusiboki bide politiko eta demokratikoen erabilerak, proiektu politiko guztiak, muga eta murrizketarik gabe, ahalbideratu ditzan konpromisoa hartzen du [Batasunak, eta hori bera eskatzen die gainerako eragileei]».

### Metodologia

- «Gatazkaren konponketari dagokionez, Batasunak bi akordio edo hitzarmenetan oinarritutako prozesua planteatzen du:

1. Euskal Herriko eragileen arteko akordioa.

2. ETArek eta Estatu espainiar zein frantziarraren arteko akordioa».

### Herri kontsulta

- «Marko politikoei zilegitasuna emateko, egun edo etorkizunean, herriari galdetu behar zaiola nagusitzea funtsezko gakoa dugu (...). Herri kontsulta horren ondorioak bermatzeko konpromisoak alde anitzekoa izan behar du».

### Galdeketerako baldintzak

- «Euskal herritarren hitz ematea era baketsu eta demokratikoan izan dadin behar diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du [Batasunak]».

### Estatuarekin

- «Hitzarmenaren sinatzaileek Euskal Herriko mintzakidetza osatuko lukete, akordioa errespetatua izan dadin estatuarekin jorratu beharreko negoziazioari begira».

